

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
14/2022 TXOSTENA**

Gaia: Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 agenda Euskadin bultzatzeko akordioa.
Udalsarea 2030 (udalerrri jasangarrien euskal sarea) berriztatzea

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0092 (2022)

Sail Tramitatzaileria: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Txostenaren oinarria: Toki Erakundearen Izaera Nazionalerako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.c artikulua

1. Aurrekariak

Lehenengoa.- 2022ko maiatzaren 2an Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko ingurumen teknikariak Udalsarea 2030 Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarearekin akordio berria hartzeko erabaki proposamena egin du.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Espainiar Konstituzioa
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki erakundeei buruzko legea

2.2. Azterketa juridikoa

Akordioaren edukiari buruz



Espainiar Konstituzioko 140. artikularekin bat, Bermeoko Udalak proposatutako akordioa hartzeko autonomia dauka. Gainera, Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.1 artikularekin bat Udalak, auzotarren beharrak eta nahiak asetzeko behar beste zerbitzu publiko eta era guztietako jarduerak susta ditzake (beti ere, bere interesen kudeaketarako eta bere eskumenen esparruan).

Horrekin lotuta, Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.b, 26.1. eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.8 artikuluekin bat, udalak ingurumen arloko eta garapen jasangarrirako eskumenak dauzka.

Hori guztia kontuan hartuz, Udalak eskumena dauka proposatzen den erabakia hartzeko.

Akordioa kooperazioan eta elkarlanean hartzen da. Eta horregatik, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikulura eta hurrengoetara jo behar dugu.

Elkarlanean aritzea da gainerako administrazio publikoekin batera jardutea xede komunak lortzeko.

Lankidetzaren aritzea da administrazio publiko bik edo gehiagok, borondatez eta beren eskumenak baliatuz, ekintza komun baterako konpromiso espezifikoak beren gain hartzea.

Lankidetzaren inguruan 143. artikulua dio Administrazioak interes orokorraren zerbitzurako lankidetzaren arituko direla eta, borondatez, beren eskumenak printzipio horretarako modurik onenean baliatzea erabaki ahalko dutela.

Gainera, esaten du lankidetzaren harremanak formalizatzeko, alderdiek onarpen espresua eman beharko dutela lankidetzaren organoen akordioetan edo hitzarmenetan. Eta, kasu honetan, lankidetzaren organoen akordioa hartzea da proposatzen dena.

144. artikuluan lankidetzarako teknikak zehazten dira:



1. Lankidetzaren printzipioa betetzeko, interesa duten administrazioek egokientzat jotzen dituzten teknikak erabili ahalko dira, esaterako honako hauek:

a) Lankidetzaren organoetan parte hartzea, administrazio publiko batzuen eskumenen barruan sartzen diren arloetan neurriak eztabaidatu eta, hala badagokio, erabakitzeke.

b) Beste administrazio publiko batzuetako organo aholku-emaileetan parte hartzea.

c) Administrazio publiko batek beste administrazio baten mendean edo hari lotuta dauden organismo publiko edo entitateetan parte hartzea.

d) Beste administrazio publiko batzuei bitarteko material, ekonomiko edo pertsonalak ematea.

e) Administrazioarteko lankidetzaren aritzea, arlo jakin bateko araudi erregulatuak modu koordinatuan aplikatzeko.

f) Nahitaezkoak ez diren txostenak egitea, administrazio batzuek eta besteek beren irizpidea adieraz dezaten haien eskumenetan eragina duten proposamen edo jarduketari buruz.

g) Ondare-arloko lankidetzaren jarduketak, barnean direla titulartasun-aldaketak eta ondasunak lagatzea, ondare-legerian ezarrita baitaude.

h) Legean aurreikusitako beste guztiak.

Beraz, proposatzen den akordioa teknika horiekin bat dator.

Gainera 144. 2. artikulua zera zehazten du: *Lankidetzaren formalizatzeko egiten diren hitzarmen eta akordioetan, halakoak sinatzen dituzten alderdiek beren gain hartzen dituzten baldintza eta konpromisoak aurreikusiko dira.*



Zentzu horretan, akordioaren agiriaren 4. hizpaketan eta II.A eranskinean zehatz-mehatz zehazten dira Udalak asumitzen dituen konpromisoak eta funtzioak. Konpromiso eta funtzio horiek, besteak beste, dira:

- 2030 Agenda bide-orri gisa erabiltzea tokiko plangintza eta ekintzarako, eta GJHen arabera ikuspegia udal politika eta kudeaketa txertatzea.
- Aurrera egitea, modu gradualean, Tokiko 2030 Agendaren prozesuen inplementazioan, Udal bakoitzaren konpromiso politiko gisa eta etengabeko hobekuntzarako konpromiso gisa, udalerrak eta/edo eskualdeak garapen jasangarriari egiten dion ekarpen bezala. - Kargudun politiko bat eta ordezkari bat izendatzea Sarerako ordezkari gisa, eta baita interlokuzio teknikorako pertsona bat ere izendatzea.
- Sarearen jardura eta foroetan modu aktiboan parte hartzea edo ordezkari gisa dagokion Eskualde erakundeari delegatzea, Sarearen plan estrategikoetan eta kudeaketa planetan ezartzen diren helburu espezifikoak betetzen laguntzeko.
- Kontaktuak, informazioa, ezagutza, materiala eta esperientziak modu proaktiboan ekartzea eta konpartitzea, Sarearen liburutegi birtuala zabaltzeko eta beraren adimen kolektiboa handitzeko. Ihebek horren banaketa kudeatuko du.
- Kolaboratzea eta Sarearen eskari eta beharrei erantzutea, eta, zehazki, udal politika eta antolaketari buruzko bi urtetik behingo inkesta betetzea, Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokitako.

2.A Eranskina sinatzeko eskumena Alkatetzak izango du, udalaren ordezkari moduan.¹

Akordioaren xedea, 1. Hizpaketan jasotakoa, ez dator Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedearekin bat. Izan ere, kasu honetan xedea da tokiko jasangarritasuna (Udalsarea 2030) Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen bidez Euskadin bultzatzera zuzendutako kooperazio- eta lankidetzaren esparrua ezartzea.

¹ Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.b artikulua arabera.



Eta horri begira, Tokiko 2030 Agendaren aldeko konpromisoaren eta beraren ezarpen, garapen eta jarraipenaren alde egiten duten Administrazio publikoen arteko harremanak arautzen dira hitzarmenean, helburu honekin: 2030 Agendaren bidez tokiko ekintza jasangarria sustatzea dokumentu honi atxikitzen zaizkion tokiko euskal erakundeetan (Udalak eta Eskualde-erakundeak).

Are gehiago, kasu honetan, akordioa Sektore Publikoko Kontratuaren Legetik kanpo gelditzen da, izan ere, esan den moduan akordioaren helburua ez da Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen kontratuen artean sartzen eta akordioa bere aplikazio eremutik kanpo gelditzen da. Izan ere, akordioan entitate parte-hartzaileen arteko lankidetzaz ezartzen edo garatzen da, beraiei dagozkien zerbitzu publikoak komunean dituzten helburuak beteko direla bermatzeko eta lankidetzaz interes publikoari dagozkion gogoetetatik bideratzeko.

Akordioaren indarraldiari dagokionez, 4 urteko indarraldia ezarri da lehenengo atxikimendua balioztatzen den egunetik zenbatzen hasita. Eta ingurumen teknikariak epe horren aldeko adierazpena egin du 2022ko maiatzaren 2ko erabaki proposamenean.

Jarraitu beharreko prozedurari buruz

Prozedurari dagokionez, hurrengo pausuak bete beharko dira:

- Justifikatu beharko da akordioa hartzeko beharrezana eta onurak Bermeoko Udalarekiko.

Ingurumen teknikariaren 2022ko maiatzaren 2ko erabaki proposamenean horrela justifikatu da.

- Proposamena beharko da

Ingurumen teknikariak 2022ko maiatzaren 2an erabaki proposamena egin du.



- Eragin ekonomikorik badauka, kontuhartzailearen fiskalizazio txostena beharko da.
- Idazkari nagusiaren txostena beharko da
- Informazio Batzordearen irizpena beharko da
- Akordioa Osoko Bilkurak hartu beharko du gehiengo osoz, 7/1985 Legearen 47.2.g artikulua araber.
- Akordioa Udaleko erregistro elektronikoko eguneratua jaso beharko da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 144. 4. artikuluekin bat.²

Eskumenari buruz

Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, erabaki beharko du Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 agenda Euskadin bultzatzeko akordioa hartzea (Udalsarea 2030).³
Behin erabakia hartuta, IIA Eranskina sinatzeko eskumena Alkateari dagokio.⁴

3. Ondorioak

Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 agenda Euskadin bultzatzeko akordioari, Udalsarea 2030 (udalerrri jasangarrien euskal sarea) berrizatzeko proposamenari, **aldeko txostena** egiten zaio.

² Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 144. 3. Administrazio publiko bakoitzak erregistro elektronikoko eguneratu bat edukiko du, zeinak administrazio horrek parte hartzen duen lankidetzako-organok eta sinatu dituen hitzarmenak jasoko baititu.

³ Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.b) eta 47.2.g artikuluekin bat.

⁴ Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b artikulua araber.



Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Dena den, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko
du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

*Oh. 2022ko maiatzaren 2an sinatutako txostenaren ondorioan akats materiala antzeman da eta
zuzendu da*



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E60009A72500E6W6B5V6Z3R4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 12/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/05/2022
14:43:17

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0092
Data: 11/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

